

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

3252

AGINDUA, 2022ko uztailaren 5ekoa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, 2022ko ekitaldian EAEn irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak ematea arautzen eta iragartzen duena.

Jokoa gizarte-, jolas- eta dibertsio-jardueratzat jotzen da eta joko patologiko bihur daiteke jokalariek askatasun emozionala galtzen duenean eta horrek haren jokabidean zuzeneko eragina daukanean. Oso nahasmendu ezgaitzailea, progresiboa eta kronikoa bihurtzen da eta norberaren, familiaren, gizarte-arloko eta lan-arloko narriadura eragiten du. Beraz, osasun publikoko arazo bilakatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoaren Erregelamendu Orokorrak, uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren bidez onetsiak, joko arduratsuen printzipioak ezartzen ditu 10. artikuluan.

Joko arduratsua esaten zaio jokalariek joko-jarduera kontzienteki eta ingurune osasungarrian garatzen duela bermatzen duten neurrien, arauen eta informazioen multzoari, betiere jokalariek borondateari eta erabakitzeke askatasunari murrizketarik jarri gabe.

Jokoa Arautzeko Agintaritzak jokalariek eskubideak bermatuko ditu eta joko arduratsua sustatuko du; horretarako, prebentzio- eta heziketa-kanpainak bultzatu eta babestuko ditu, eta prebentzio- eta laguntza-programetan esku hartuko du Osasun arloko sail eskudunarekin, toki-administrazioekin eta adikzio-jokabideak artatzen dituzten elkarteekin elkarlanean.

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek joko patologikoaren eremuan egiten dituzten jarduketak azpimarragarriak dira eta eraginkortasuna aitortzen zaie. Kontuan izanik Osasun Sailak diruz laguntzen dituela erakunde horiek adikzioen prebentzio selektibo, agindutako eta asistentzialaren eremuan egiten dituzten jarduerak, deialdi honen helburua da informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduketarako dirulaguntzak ematea.

Deialdi hau Euskal Autonomia Erkidegoan dirulaguntzen eta laguntzen arloan indarrean dagoen araudiaren babesean egiten da. Hain zuzen, xedapen hauetan dago bilduta: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina –EONALTB– onartzen duenaren) IV. titulua, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) eta aipatutako legearen erregelamendua onartzen duen Errege Dekretua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua).

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honek xede du irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea, lehia-konkurrentziaren araubidean, joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egin ditzaten. Gainera, 2022ko dirulaguntzen deialdia egiten da.

2.– Dirulaguntza honen helburua da irabazi-asmorik gabeko erakundeek jokoari lotutako jokabide arriskutsu eta arazotsuei buruz egiten dituzten informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerari eusten laguntzea. Honako hau jotzen da prebentzio unibertsaltzat: biztanleria orokorrari zuzentzen zaiona eta osasunaren sustapenaren bidez egiten dena, jokoari lotutako adikzio-jokabideek dakartzaten arazoei buruzko ezagutza sortzeko eta orientazioa emateko.

3.– Agindua bat dator Segurtasun Sailaren 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ezarritako jarraibideekin. Plan hori Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren agindu baten bidez onartu zen.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak eta laguntzen muga.

Agindu hau betetzeko, gehienez ere 200.000 euro bideratuko dira, abenduaren 23ko 11/2021 Legearen bidez onartutako EAEn 2022ko aurrekontuetan kontsignatuak.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Lehia-konkurrentziaren araubidean, joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak, biztanleria orokorrera zuzenduta daudenak eta joko patologikoa sor dezaketen aztura edo jokabideetarako sustagarria kentzeko helburua daukatena, egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeek heldu ahalko diete agindu honetan xedatutako laguntzei, jarduerok 2022. urtean egiten badituzte eta betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Legearen barruan sortuak izan behar dute, eta dagozkien administrazio-erregistroetan edo -erroldeetan behar bezala erregistratuta egon behar dute dirulaguntzen deialdia baino urtebete lehenagotik, gutxienez.

b) Irabazi-asmorik gabekoak izan behar dute, edozein dutela ere forma juridikoa: elkarte, fundazioa, gizarte-ekimeneko kooperatiba edo irabazi-asmorik gabeko besteren bat. Irabazi-asmorik ezak erakundearen estatutuetan jasota egon behar du.

c) Helburu publiko bat edo gizarte-intereseko helburu bat lortzea sustatzea. Estatutuen xedeek interes orokorra sustatu behar dute, eta arlo hauetakoak izan ahalko dira: izaera zibikoa, hezkuntza, zientzia, kultura, kirola, osasuna, giza eskubideen sustapena, gizarte-laguntza, garapenerako lankidetzak, emakumearen sustapena, familiaren sustapena eta babesa, haurren babesa, aukera-berdintasuna eta tolerantzia sustatzea, ingurumena babestea, gizarte-ekonomia edo ikerketa sustatzea, gizarte-boluntariorik sustatzea, edo arrazoi fisikoengatik edo gizarte-, ekonomia- nahiz kultura-arrazoiengatik baztertua geratzeko arriskua duten pertsonen laguntzea eta arreta ematea.

d) Egunean izatea indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

e) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea.

f) Euren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan garatzea, nagusiki.

g) Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak) 50.6 artikuluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 13. artikuluan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte eta ez dute azken artikuluko horren 2. eta 3. apartatuetan aipatutako ezein inguruabarretan egon behar.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuak.

1.– Agindu honen ondorioetarako, joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko proiektuetan joko dira xede hauek dituzten ekintzak zertzen dituztenak:

a) Joko patologikoaren arriskuarekiko kalteberatasun-egoerak detektatzea.

b) Joko arduratsuen ezaugarriari buruzko ezagutza sustatzea.

c) Joko arazotsuan, gehiegizko jokoan eta joko patologikoan aritzeko arrisku-egoeraren adierazleei buruzko eta jokoak adikzioa sortzeko duen ahalmenean eragin handiena duten faktoreei buruzko ezagutza sustatzea.

d) Teknologia berriek jokorako dakartzaten arriskuen berri ematea.

e) Joko patologikoaren aurka borrokatzeko jarduera eta baliabide publikoak eta pribatuak zabaltzea.

2.– Proiektuek kolektibo hauek izan ahalko dituzte xede, besteak beste:

– Adingabeak.

– Gazteak eta nerabeak.

– Familiak.

– Hezkuntza-komunitatea.

3.– 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte burututako proiektuak lagundu ahalko dira diruz.

5. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honen bidez araututako dirulaguntzak ematea bateragarria izango da jarduera bera finantzatzeko beste administrazio batzuek edo beste erakunde publiko zein pribatu batzuek ematen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskuratzearekin. Administrazio honetako beste erakunde batzuek emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin ere izango dira bateragarriak. Dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du gairitu erakunde onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntzekin edo laguntzekin batera bada ere.

2.– Aurrekoaren ondorioetarako, eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da; horren bidez, adierazi beharko da helburu bera lortzeko bestelako finantzaketa-iturririk dagoen ala ez, iturri horien zenbatekoa eta, hala badagokio, oraindik ebatzi beharreko dirulaguntzen eskaerarik dagoen ala ez, agindu honen 8. artikuluekin bat etorriz.

3.– Lortutako laguntza eta dirulaguntza guztien batura jardueraren aurrekontu osoa baino handiagoa baldin bada, dirulaguntza murriztuko da soberakina kenduta.

6. artikulua.– Laguntzak elektronikoki izapidetzea.

1.– Erakunde interesdunek bide elektronikoez egingo dituzte eskaerak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak.

2.– Jakinarazpenak bide elektronikoez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>. Jakinarazpen-sistemak ahalbidetuko du egiaztatzea zer egunetan eta zer orduetan jarri zaion eskuragarri jakinarazten den egintza erakunde interesdunari edo, hala badagokio, legezko ordezkariari edo baimendutako pertsonari, eta noiz ikusi duen haren edukia; une horretatik aurrera, jakinarazpena egindakotzat joko da. Eskuragarri jarri dela frogatuta dagoenean eta edukia ikusi gabe hamar egun natural igarotzen direnean, jakinarazpena arbuiatu dela ondorioztatu, eta izapidea egindakotzat joko da. Beraz, prozedurak aurrera egingo du, ofizioz edo hartzaileak eskatuta jakinarazpena ikustea teknikoki edo materialki ezinezkoa izan dela egiaztatu ezean.

3.– Laguntza hauek izapidetzeko bide elektronikoen erabilera lege hauen bidez arautuko da: Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (urriaren 1eko 39/2015 Legea), Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea (urriaren 1eko 40/2015 Legea) eta Administrazio Elektronikoari buruzko Dekretua (otsailaren 21eko 21/2012 Legea).

4.– Izapidetze elektronikoa eta bide elektronikoak erabiltzeko jarraibideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri, hain zuzen, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/>

7. artikulua.– Eskaerak aurkeztea: modua eta epea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

2.– Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (bertan daude izapideak egiteko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak, eta haren bidez sar daiteke eskaera egiteko inprimakira) honako esteka honetan dago: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1109103>

Prozedura honen izapide guztiak modu telematikoa egin ahal izateko, erakunde eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak onartutako edozein ziurtagiri elektronikoa erabili ahal izango dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bideak helbide hauetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

3.– Eskaeraren osteko izapide elektronikoa, jakinarazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Eskaerak, agindu honen 8. artikulua arabera erantsi behar den dokumentazio osagarriarekin batera, erakunde interesdunaren legezko ordezkariaren sinadura elektronikoa erabiltzeko dira. Eskaerak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1109103>

Halaber, izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkari hori Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

5.– Erakunde eskatzaileek aukeratzen duten hizkuntza aurkeztu ahalko dituzte laguntza-eskaera eta erantsi behar den dokumentazioa. Era berean, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da laguntza-eskaeraren ondoriozko jarduketetan eta prozedura osoan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak (azaroaren 24ko 10/1982 Legeak) ezartzen duen moduan.

6.– Bai laguntza ematean bai ordainketak egitean eskatzaileek tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, behar adina aldiz, eskatzaileek baimenik eman behar izan gabe, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartuak) 50.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuz. Hala ere, eskatzailea horren aurka agertu ahal izango da, horren zergatia emanda. Halakorik egiten baldin badu, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Era berean, bai laguntza ematean bai ordainketak egitean, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak betetzen direla egiaztatuko da.

7.– Eskaeretan adierazi ahalko da laguntza eskatu duen erakundeak baimena ematen diola berariaz Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari datuak edo dokumentuak eskuratzeko edo egiaztatzeke, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak egiaztatzeke, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dituen ahalmenak.

Ziurtagiri elektronikoko onartu baten bidez identifikatutako pertsona fisikoen nortasun-datuei dagozkienez ez da dokumentaziorik aurkeztu behar.

8.– Agindu honetan aipatutako erantzukizunpeko adierazpen guztietan jasotako datuak egiazkoak direla frogatu beharko dute onuradun izateko proposatzen diren pertsonak, dena delako laguntza edo dirulaguntza emateko prozedura ebatzi baino lehen frogatu ere, dagozkien agiriak aurkeztuz edo organo kudeatzaileari dokumentazioa egiaztatzeke baimena emanaz.

9.– Eskaerak aurkezteak esan nahi du deialdi honen oinarriek zehazten dituzten baldintzak berariaz eta formalki onartzen direla.

8. artikulua.– Eskaeren edukia.

1.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartuak) 50.6 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak (azaroaren 17ko 38/2003 Legeak) 13.7 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, pertsona eskatzaileak betekizun hauek egiaztatuko ditu eskaera-orri normalizatuetan:

a) Jakinaraztea helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu direla, eta, hala balitz, lortu, beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutan.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren menpeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan inolako itzulketa- edo zehapen-prozeduratan sartuta ez dagoela edo prozedura horiek amaituta daudela egiaztatzea.

Agindu honetan xedatutako laguntzak erakunde onuradunei emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren menpeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan hasita dauden eta oraindik izapidetzen ari diren zehapen-prozedura guztiak amaitzea.

c) Erakunde eskatzaileak dagokion epai edo ebazpen irmoak ezartzen duen aldian laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dion administrazio- edo zigor-zehapenik ez daukala edo laguntzok jasotzeko gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ez daukala egiaztatzea, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legeak) azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoa barnean dela.

d) Erakundea legez eratuta eta dagokion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzea.

2.– Pertsona eskatzaileak erakundea eratzeko eskritura aurkeztu beharko du, baita haren estatutuak, dagokion erregistroko inskripzioa eta erakundearen IFK ere.

3.– Erakunde eskatzaileak lehenago jokoari lotutako arazoekin zerikusia duten dirulaguntzak eskuratu baditu, hori egiaztatzeke frogagiria aurkeztu beharko du.

4.– Proiektu bakoitzeko eskaera bat bete beharko da; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1109103>

Eskaerek, gutxienez, datu hauek jasoko dituzte:

a) Proiektua aurkezten duen erakundearen eta pertsonaren identifikazio-datuak (nor den, zer erakunde ordezkatzan duen) eta kokapen-datuak (posta-helbidea, telefono-zenbakia, etab.).

b) Proiektuaren izena.

c) Erakunde sustatzailea: erakundearen deskribapena, ibilbidea eta proiektuak xede duen arloan izan duen esperientzia.

d) Proiekturako harremanaz arduratzen den teknikariaren datuak.

e) Proposatutako proiekturako lantaldeko kide bakoitzaren izen-abizenak, lanbide-taldea, titulazioa, arduraldia (lanaldi osoa edo partziala –ehunekoa adierazita–, proiektuari eskainiko zaion lanaldiaren ehunekoa), lan-kontratuaren hasiera- eta amaiera-data eta lan-kostua (Gizarte Segurantzaren barne).

f) Proiektuaren garapenaren deskribapena.

g) Justifikazioa edo arrazoiak: egoeraren diagnostikoa.

h) Proiektuaren eta proiektua sustatzen duen erakundearen historia laburra.

i) Oinarri teorikoak: zein arlotan eragin nahi den.

j) Proiektuaren helburuak: helburu orokorra, helburu espezifikoak eta helburu operatiboak.

k) Proiektuko jarduerak honako fase hauetan: plangintza eta diseinua, ezarpena eta gauzatzea, ebaluazioa eta aurreikusitako beste fase batzuk.

l) Proiektuaren baliabideak, koordinazioa eta sareko lana barne.

m) Proiektuaren aurrekontua, proiektuaren kostu osoa (kontzeptuen arabera zehazturik) eta proiekturako diru-sarrerak barne.

9. artikulua.– Eskaeraren akatsak zuzentzea.

Dirulaguntzak jasotzeko eskaerak behar bezala osorik betetzen ez badira edo aurreko apartatuan zerrendatutako dokumentazioa eransten ez bazaie, errekerimendu telematikoa egingo zaio interesdunari, hamar eguneko epean akatsak zuzendu edo aginduzko dokumentuak aurkeztu ditzan. Halaber, jakinaraziko zaio hori egin ezean eskaeran atzera egin duela ondorioztatuko dela. Administrazioak eskaera horri buruzko berariazko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015 Legeak) 21. eta 68. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

10. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, errekurtsioak eta publikotasun-prozedura.

1.– Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza izango da agindu honetan araututako laguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

2.– Laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez ebatziko dira. Aurkeztutako eskabideak ebaluatzeko, Balorazio Batzordea sortuko da, eta honako hauek osatuko dute:

Jon Agirre Garai jauna, Joko eta Ikuskizunen Bizkaiko Lurralde Bulegoko arduraduna.

Beatriz Anitua Zabaleta andrea, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako teknikaria.

Begoña Calderón Martínez andrea, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako teknikaria.

Pablo Casado Pascual jauna, Joko eta Ikuskizunen Arabako Lurralde Bulegoko arduraduna.

Pilar Etxezarreta Villaluenga andrea, Joko eta Ikuskizunen Gipuzkoako Lurralde Bulegoko arduraduna.

Aitor Uriarte Unzalu jauna, Joko eta Ikuskizunen zuzendaria eta batzordeburua.

Kide anitzeko organoko idazkaritza batzordeburuak batzordekideen artean izendatutako pertsonak beteko du.

Balorazio-batzordearen funtzionamenduari dagokion guztirako, osagarri moduan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeak (urriaren 1eko 40/2015 Legeak) 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa aplikatuko da.

3.– Segurtasuneko sailburuordearen ebazpen baten bidez emango dira laguntzak.

Laguntzak kudeatzen dituen organoak edo balorazio-batzordeak egoki iritzitako informazio eta dokumentazio osagarri guztia eskatu ahal izango diete erakunde eskatzaileei, aurkeztutako proiektua edo jarduera hobeto ulertzeko behar badute, eta egokiak diren egiaztapenak egin eta aurkeztutako datuak erkatu ahalko dituzte laguntzak ondo adjudikatzeko.

Agindu honen babesean egindako laguntza-eskaerak ebazteko eta jakinarazteko epea 6 hilabetean amaituko da, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

4.– Jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Laguntzak emateko ebazpenetan, erakunde onuradunaren betebeharrak (agindu honen artikuluan xedatutakoak) adieraziko dira eta berariaz aipatuko da Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laguntzen xedea fiskalizatzeko eginkizunak betetzean eskatzen duten informazio guztia eman behar dela.

6.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, eta hargatik eragotzi gabe ebazpenak berariaz eta banan-banan jakinaraztea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, Segurtasuneko sailburuordearen ebazpen bidez argitaratu ere, xedapen honen babesean emandako dirulaguntzen onuradun gertatu diren erakundeen zerrenda (esleitutako zenbatekoak adierazita) eta hasiera batean emandako dirulaguntza aldatu zaienen zerrenda.

7.– Agindu honen arabera Segurtasuneko sailburuak laguntza emateko edo ukatzeko ematen dituen ebazpenek ez diote amaierarik ematen administrazio-bideari, eta horien aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015 Legeak) 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

8.– Norbaitek uko eginez gero, emandako dirulaguntza onartzeko epea igarota, ebazpen bat emango da eta, horren bidez, emandako puntuazio-hurrenkera aintzat hartuta, uko-egiteetatik ateratako zenbatekoa esleituko da.

11. artikulua.– Adjudikazio-irizpideak eta horien haztapena.

1.– Lehiaketa izanik laguntzak emateko prozedura, aurkeztutako eskaerak alderatuz emango dira. Horretarako, artikulua honetan agertzen diren balorazio-irizpideak eta agindu honen IV. eranskinean ezarritako puntuazio-tarteak erabiliko dira, eskaera guztien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko. Honako hauek dira balorazio-irizpideak eta haien haztapena:

1.1.– Erakunde eskatzailearen aurretiazko esperientzia (0-20 puntu).

a) Erakunde eskatzaileak jokoari lotutako arazoekin zerikusia duten jarduerak edo programak egiten daukan esperientzia. Puntu 1 emango da erakundeak Administrazio Publikoen laguntzaren bat jaso zuen urte bakoitzeko. Urte berean zenbait laguntza jaso badira, horietako bat bakarrik zenbatuko da. Egiaztatzeko, dirulaguntzaren emakidaren egiaztapen-kopia edo emakida hori argitaratu zen aldizkari ofizialeko erreferentzia aurkeztu beharko da, baita organo emaileak dirulaguntzaren betetze-mailari buruz emandako egiaztapena ere. Era berean, puntu bat emango da egindako jarduera bakoitzeko, nahiz eta finantzaketa publikorik ez eduki, baldin eta agirien bidez justifikatzen bada (gehienez: 10 puntu).

b) Jokoarekin zerikusia duten patologietarako laguntzaren eta prebentzioaren eremuan duen esperientzia, puntu 1 urte bakoitzeko (gehienez: 10 puntu).

1.2.– Dirulaguntzarekin egingo diren jardueren balorazioa (0-80 puntu):

a) Diseinuaren kalitate teknikoa, hau da, harreman koherentea egotea eraginpean jarri nahi diren faktoreen, lortu nahi diren helburu espezifikoaren, helburu horiek eskuratzeko aurreikusitako jardueren eta helburu horiek lortzeko adierazlearen ebaluazioaren artean (gehienez: 30 puntu).

b) Jarduera gizarte-ekimeneko beste erakunde batzuekin, eremu sozial, sanitario, soziosanitario edo hezkuntza-eremuko beste federazio edo erakunde batzuekin koordinatuta eta lankidetzan gauzatzea, sare-lana sustatuz. Era berean, Jokoa Arautzeko Agintaritzarekin, batez ere Jokoaren Euskal Behatokiarekin, elkarlanean egin diren ekintzak baloratuko dira apartatu honetan (gehienez: 10 puntu).

c) Proiektuaren efizientzia, hau da, proiektuaren kostuaren, onuradun kopuruaren eta programa aplikatzeak eragingo dituen onuren arteko erlazioa (gehienez: 20 puntu).

d) Proiektuak joko arazotsuaren prebentzioan eta joko arduratsuaren hedapenean izango duen eragina, proiektuko jardueren hartzaileen kopurua neurtuta: (gehienez: 20 puntu).

2.– Aurreko apartatuan jasotako irizpideak erabiliz eskaeren hurrenkera ezarrita, puntu gehien lortzen dituzten eskaerei adjudikatuko zaizkie laguntzak, harik eta zuzkidura ekonomikoa agortu arte.

Berdinketa gertatuz gero, 1.1.b) balorazio-irizpidean puntuazio handiena lortu duen eskaerak izango du lehentasuna.

3.– Eman beharreko laguntzetako bakoitza zehaztu eta zenbatesteko, kopuru hauek biderkatu beharko dira: batetik, onartutako aurrekontuaren % 75 eta, bestetik, proiektua baloratzean lortutako puntuak kalkulaturik ateratzen den ehunekoa, proiektu batek artikulua honen arabera lor

ditzakeen puntuei dagokienez. Nolanahi ere, laguntzaren zenbatekoa ezingo da izan eskatutako kopurua baino handiagoa.

12. artikulua.– Zenbatekoa, ordaintzeko modua eta baldintzak.

1.– Segurtasun Sailak % 75eraino finantzatu ahal izango du aurreko artikuluan ezarritako moduan onartutako aurrekontua. Onartutako aurrekontutzat hartuko da aurkeztutako proiektuaren guztizko aurrekontua, zeinak eskatutako proiektuan adierazitako ekintzetara egokitua eta doitua egon behar duen.

Diruz lagungarria den proiektuarekin zuzeneko erlazio objektiboa daukaten jardueri dagozkien gastuak izango dira dirulaguntzaren xedea. Erakundeko langileei, diruz lagundutako proiektua zuzenean egikaritzeko behar direnei, dagozkien zuzeneko gastuen barruan, haien arduraldi-ehunekoa eta lan-kategoria adierazi beharko dira. Langile propioen gastuak ezingo dira izan honako hauek baino handiagoak:

a) Goi-mailako teknikaria, lanaldi osoan: 45.470 euro gordin urtean (atxikipenen eta Gizarte Segurantzaren zenbatekoak barne).

b) Erdi-mailako teknikaria, lanaldi osoan: 37.245 euro gordin urtean (atxikipenen eta Gizarte Segurantzaren zenbatekoak barne).

c) Administraria, lanaldi osoan: 30.024 euro gordin urtean (atxikipenen eta Gizarte Segurantzaren zenbatekoak barne).

Zeharkako kostuak (administrazioa, kudeaketa, bulego-materiala, telekomunikazioak, ura, gasa, elektrizitatea eta bestelako zerbitzuak, dirulaguntza eskatu den proiektuari argi eta garbi egozteko modukoak badira, formulazio, jarraipen eta ebaluaziorako) ezingo dira programaren zuzeneko kostuaren % 20 baino gehiago izan.

Proiektu bakoitzari ez zaio emango laguntza-agindu honetarako xedatutako aurrekontu-partidaren guztizko zenbatekoaren % 20 baino gehiago. Geldikina badago, ezarritako gutxieneko puntuazioa gainditzen duen proiektu nahikorik ez dagoelako, ehuneko hori handitu ahalko da, funtsak agortu arte.

2.– Diruz lagundutako jarduketak garatzeko hirugarrenak kontratatu behar badira, subjektu onuradunek DLLOaren 29. artikuluan eta DLEOaren 68. artikuluan xedatutako baldintzak bete beharko dituzte. Azpikontratazioaren proportzioa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50 baino handiagoa. Kontratuen zenbatekoak azpikontratazioaren unean indarrean dagoen kontratu-araudian xedatutako kontratu txikien zenbatekoa gainditzen duenean, ezaugarri bereziengatik merkatuan zerbitzua ematen duen erakunde nahikorik ez dagoenean izan ezik, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu. Aurkeztutako eskaintzak hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideei jarraituko zaie, eta hautapena memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikoki abantailatsuena aukeratzen ez denean.

3.– Ordainketa zatikatua izango da: % 60 laguntza onartutakoan ordainduko da, eta gainerako % 40a, berriz, Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari 2023ko urtarrilaren 15a baino lehen dirulaguntzaren justifikazio-memoria bidali ostean. Memoria horretan, diruz lagundutako proiektuaren betetze-maila adieraziko da, eta haren garapenaren balorazio kualitatiboa egingo da.

Ordainketa egin aurretik, egiaztatuko da erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkala, eta ez dela zordun dirulaguntza itzuli behar duela dioen ebazpenen batean.

4.– Justifikazio-memoriaren eredu normalizatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri, eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari bidali beharko zaizkio.

Justifikazio-memoria horri «Jarraipen ekonomikoa» izeneko agiria erantsi beharko zaio; hor jasoko dira betearazitako aurrekontuaren laburpena eta justifikazioko kontua. Justifikazioko kontua onartutako aurrekontu guztiari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat da; bertan, gastua egiaztatzeko agiri guztien zerrenda jasotzen da eta dokumentu-mota, identifikazioa, pertsona edo erakunde igorlea, kontzeptua, data, zenbatekoa eta proiektuari egotzi beharreko ehunekoa zehazten dira. Aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoa eta benetako zenbatekoa adieraziko dira, baita diruz lagundutako jarduera finantzatzeko xedatutako beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zenbatekoa eta jatorria ere.

Justifikazioa aurkeztu ostean, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak justifikatutako gastuak argitzeko edo zuzentzeko eskatu ahalko du, baita emandako laguntza kontrolatzeko behar den dokumentazio gehigarria aurkezteko ere. Horretarako, erakunde onuradunari telematikoki jakinaraziko zaio hamar eguneko epea emango zaiola zuzentzeko.

Organo kudeatzaileak egiaztapena egingo du, egokiak iruditzen zaizkion frogagirien ausazko laginketa egiteko tekniken bidez, dirulaguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko frogak eskuratzeko asmoz. Horretarako, onuradunari hautatutako egiaztagiria bidaltzeko eskatu ahalko dio.

Gainera, dirulaguntza egokiro aplikatzen dela egiaztatzeko asmoz, finantzatutako jardueraren gastu-egiaztagiriak, lagin adierazgarri batean oinarrituta, laguntza eman eta hurrengo bost urteetan egiaztatuko dira. Gainera, Segurtasun Sailak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Kontuen Euskal Epaitegiak bidezkoak diren ikuskaritza-, jarraipen- eta kontrol-ekintzak egin ahalko dituzte. Erakunde onuradunek emandako dirulaguntzaren kontura egindako gastuen egiaztagiriak gorde beharko dituzte, eta eskura eduki, datatik aurrera bost urtez gutxienez.

5.– Egiaztagiriak bide elektronikoz aurkeztu beharko dira, Nire karpeta gunearen bidez: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>. Informazioa eta prozedura Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1109103>) egongo dira eskuragarri, 6. artikuluan xedatutako izapidetze elektronikoaren jarraibideetan azaldutako prozeduraren eta jarduketan arabera.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak 50.2 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorak (azaroaren 17ko 38/2003 Legeak) 14. eta 46. artikuluetan adierazitako betebeharrak, aplikatzekoak diren heinean, alde batera utzi gabe, laguntzen onuradunak diren erakundeek, aginduaren gainerako artikuluek ezartzen dituzten betebeharez gain, honako hauek bete beharko dituzte:

a) Bai eskaerak aurkezteko bai emandako laguntzak justifikatzeko, agindu honetan xedatutako ereduak erabiltzea.

b) Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntzak emateko ebazpena jakinarazi eta hamabost eguneko epean, erakunde onuradunek berariaz uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat joko da.

c) Diruz lagundutako jardueren xedea edo izaera aldatzea dakarren edozein gertaeraren berri ematea.

d) Segurtasun Sailarekin elkarlanean aritzea jarduera horiek egiaztatzeko, ikuskatzeko, jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta kontrolatzeko prozeduretan.

e) Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren babesa berariaz jasotzea diruz lagundutako jarduera guztietan, baldin eta zabaltzeko, hedatzeko edo, hala badagokio, argitaratzeko badira.

f) Diruz lagundutako jarduera 2022ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean egitea.

g) EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean adierazitako konpromisoei jarraikiz, eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legeak) 18.4 artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, laguntza-agindu honetako jardueren ondorioz sortutako memoria, proiektu eta bestelako testu idatzietan ez da hizkera sexistarik erabiliko.

h) Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko du. Hirugarren interesdunen alta emateko edo euren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Hirugarrenen Erregistro Telematikora jo beharko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

14. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzen edozein aldaketa gertatuz gero –dirulaguntzaren helburua betetzat jotzen bada eta behar bezala justifikatuta badaude– edo aldi berean beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jasotzen badira –berdin dio administrazio publiko honek edo beste batzuek edo beste erakunde publiko zein pribatu batzuek emanak izan–, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahalko da. Ondorio horietarako, Segurtasuneko sailburuordeak dagokion likidazio-ebazpena emango du; bertan, emandako dirulaguntzen zenbatekoak doituko dira, dirulaguntza emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuz, eta erakunde onuradunek jaso duten gehiegizko zenbatekoak itzuli beharko dituzte, agindu honen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketak inoiz ez du eragingo emandako dirulaguntza handitzea.

2.– Era berean, onuradunak eskatu eta justifikatu ostean, laguntza eman zuen administrazio-organoak baimena eman ahalko du egin beharreko jardueren egikaritzea geroratzeko, alegatutako arrazoiek justifikatzen badute; horrelakoetan, dagokion laguntzaren ordainketa atzeratu egingo da.

15. artikulua.– Ezestea, isiltasunagatik.

Agindu honen babesean egindako laguntza-eskaerak ebazteko 10. artikuluan ezarritako gehieneko epea igaro ondoren, berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaerak ezetsizat hartu ahalko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015 Legeak) 25.1.a) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako; edonola ere, Administrazioak badu berariaz ebazteko betebeharra.

16. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketak.

1.– Erakunde onuradunak bere betebeharrak betetzen ez baditu, emandako laguntza jasotzeko eskubidea galduko du. Eskubidea galdu dela adieraztearekin batera, jasotako kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra sortuko da; gainera, ordainketaren unetik itzultzea bidezkoa dela erabaki arte sortutako berandutze-interesa ordaindu beharko da.

2.– Agindu honen 13. artikuluan aipatutako betebeharrerako edozein ez betetzeak itzulketa eragingo du. Artikulu horretan aurreikusita ez dauden kasuetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 eta 53.2 artikuluetan xedatutako itzultzeko arrazoiak eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak (azaroaren 17ko 38/2003 Legeak) 37.1 artikuluan (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak 91. artikulutik 93. artikuluraino garatzen duen horretan) xedatutako arrazoiak aplikatuko dira.

3.– Agindu honen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, kasu honetan ere izango da bidezkoa itzultzea: emandako laguntzaren zenbatekoa, bakarrik zein beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektuaren kostua baino handiagoa denean. Horrelakoetan, aipatutako kostua gainditzen duen zenbatekoa soilik itzuli beharko da, dagokion berandutze-interesarekin batera.

4.– Era berean, itzultzeko arrazoia izango da agindu honen 14. artikulua aipatutako baldintzen aldaketa. Laguntza aldatzeko ebazpenaren arabera finkatzen den zenbatekoa gainditzen duen jasotako kopurua itzuli beharko da; ebazpenerako, agindu honetan dirulaguntza emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko dira.

5.– Itzulketa-prozedura Segurtasuneko sailburuordeak hasi eta ebatziko du, egokiak diren izapide prozesalak egin ostean. Prozedura hau izapidetzeko, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituenak) xedatutakoari jarraituko zaio.

6.– Aipatutako zenbatekoak diru-sarrera publikotzat hartuko dira legezko ondorioetarako, eta erantzukizun-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 64. artikuluan xedatutakoa izango da.

17. artikulua.– Itzulketa-prozedurak.

Aurreko artikuluan aurreikusitako ez-betetzeen kasuetan, hau izango da jasotako laguntzak itzultzeko prozedura:

- Prozedura hasteak, hala badagokio, oraindik egiteke dauden ordainketak etengo ditu.
- Segurtasuneko sailburuordeak itzulketa-prozedura hasi dela eta zergatik hasi den jakinaraziko dio interesdunari, eta 15 eguneko epea emango dio egoki irizitako alegazioak aurkez ditzan.
- Alegazioak jaso ondoren edo alegazio-epea alegaziorik egin gabe amaitzen bada, amaiera emango zaio prozedurari, Segurtasuneko sailburuordearen ebazpen baten bidez.
- Itzultzeko prozedura, gehienez ere, hamabi hilabetean ebatzi behar da.
- Ebazpenak ez-betetzea dagoela baiesten badu, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela adieraziko du eta, behar izanez gero, bidezko diren kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra, ebazpena jakinarazten denetik gehienez ere bi hilabeteko epean. Epe hori izango da borondatezko aldiaren epea.

Dagozkion kopuruak borondatezko aldiari itzuli ez badira, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Ogasun Sailburuordetzari jakinaraziko zaio, aplikagarri den legezko araudian xedatutakoa betez joko dezan.

18. artikulua.– Aplikatu beharreko dirulaguntza-araudia.

Dirulaguntza deialdi honi Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak (azaroaren 17ko 38/2003 Legeak) eta hori garatzen duen erregelamenduak (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsiak) jasotako oinarritzko araudian xedatutako dirulaguntzen araubide juridikoa aplikatu behar zaio. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartuak) VI. tituluaren eta VII. tituluko III. kapituluaren eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituenak) xedatutakoa aplikatu beharko da.

19. artikulua.– Datu pertsonalen babesari buruzko informazio-klausula.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra), Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoa (abenduaren 5eko 3/2018 Legea) eta datuen babesaren arloan indarrean dauden gainerako arauak betetzeko, jakinarazten da datu pertsonalak tratatu eta «Joko patologikoa prebenitzeko dirulaguntzak» deritzon tratamendu-jardueran sartuko direla. Hauek dira haren ezaugarriak:

Arduraduna: Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza. Segurtasun Saila.

Xedea: EAEn irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak egiteko laguntzen eskaerak eta horien jarraipena kudeatzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

Hartzaileak: ez da aurreikusten datu-komunikaziorik.

Eskubideak: Datuak eskuratu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubideak dituzu, bai eta informazio gehigarrian adierazten diren beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Gure web-orrialdean begira dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/152700-cap2-eu.shtml>

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra.

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, agindu honen aurka, interesdunek aurrerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Bi epe horiek agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira zenbatzen.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ordezko araubidea.

Agindu honetan aurreikusita ez dauden alderdi guztietarako, xedapen hauek aplikatuko dira: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina –EONALTB– onartzen duena), Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) eta aipatutako legearen erregelamendua onartzen duen Errege Dekretua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (urriaren 1eko 39/2015 Dekretua) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea (urriaren 1eko 40/2015 Legea).

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 5a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

I. ERANSKINA

ESKABIDE ELEKTRONIKOA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, 2022. URTEAN, IRABAZI-
 ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEK JOKO PATOLOGIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ETA
 PREBENTZIO UNIBERTSALEKO JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK

*Derrigorrezko eremuak

Identifikazioa

Instrukzio-organoari zuzenduta: JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

Konektatutako pertsona:

Espedientearen pertsona/erakunde interesdun gisa ari naiz

Identifikazio-dokumentua	Zenbakia	Erakundearen izena:

Honako honen ordezkari gisa ari naiz: _____

Identifikazio-dokumentua	Zenbakia	Izena	Lehenengo abizena	Bigarren abizena

Telefono finkoa: _____

Telefono mugikorra: _____

Jakinarazpenen hartzailea

Espediente hau izapidetzean administrazioak bidaliko dituen jakinarazpenen hartzailea hau izango da:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: «Nire karpeta» ataleko jakinarazpenen eta komunikazioen ontzira bidaltzen dira. Sartzeko, identifikazio-bitarteko elektronikoa bat behar da.

Kanal elektronikoa: 10 egun naturaleko epean ez bazara sartzen jakinarazpen elektronikoa bat ikustera, ulertuko da uko egin diozula; izapidea egintzat emango da eta Administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak

Honako datu hauek abisu-jakinarazpenak posta elektronikoz edo SMS bidez bidaltzeko erabiliko dira.

*Posta elektronikoa: _____ Telefono mugikorra: _____

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza

Mezu elektronikoen eta abisu-mezen bitartez bidaliko zaizkizun jakinarazpenak eta komunikazioak zuk adierazitako hizkuntzan bidaliko dira.

Euskara Gaztelania

2022ko uztailaren 18a, astelehena

Datuak erabiltzeko baimena

- Bai, onartzen dut nire komunikazio- eta abisu-datuak oro har erabiltzea Eusko Jaurlaritzaren sailekin eta organismoekin ditudan harremanetan.
- Ez, espediente hau kudeatzeko besterik ez erabili nire komunikazio- eta abisu-datuak.

Datuak betetzea**HELBIDEA**

*Lurralde historikoa _____ *Udalerrria _____

*Helbidea _____ *Zenbakia _____ *Solairua: Letra: _____ *Posta-kodea: _____

BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

*Erakundearen betebeharrak fiskalei buruzko informazioa duen Zerga Administrazioa dagoen lurraldea/probintzia: _____

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

- Erakundea ez da xede honekin berarekin inolako administrazio publiko edo erakunde pribaturen dirulaguntzarik jasotzen ari.
- Erakundeak beste administrazio publiko edo erakunde pribatu baten laguntza eskatu du, eta eman egin zaio (puntu honetako datuak II. eranskinean –*Dirulaguntzen konkurrentziari buruzko komunikazioa*– zehaztu behar dira).
- Erakundeak beste administrazio publiko edo erakunde pribatu baten laguntza eskatu du, eta ebazpenaren zain dago (puntu honetako datuak II. eranskinean –*Dirulaguntzen konkurrentziari buruzko komunikazioa*– zehaztu behar dira).
- *Erakundeak egunean ditu indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, erregelamenduz zehaztu den bezala.

Ez dut dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten didan zehapen penal edo administratiborik; ez dut horretarako gaitasuna kentzen didan legezko debekurik ere.

Ez nago sartuta itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean; hau da, EAEko Administrazio Orokorra edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozeduraren batean.

Egiazkoak dira eskaeran eta eskaerarekin batera doazen agirietan emandako datuak.

Laguntza hauen onuraduna izateko indarrean dauden legeek ezarritako baldintzak betetzen ditut.

BAIMENA

- Baimena ematen diot deialdiaren erakunde kudeatzaileari eskumena duen Administrazioan egiaztatzeko edo ziurtatzeko, bide telematikoaren bidez, edo, hala badagokio, eskura dauden bidez.

2022ko uztailaren 18a, astelehena

ERAKUNDE ESKATZAILEA

*Erakundearen jarduerak hartzen duen lurralde-eremua _____

*Erakundearen aurkezpen laburra (ibilbidea eta egungo errealitatea, misioari, kideei, egiturari, egindako jarduketa nagusiei eta lortutako emaitzei dagokienez).

ZEIN ERREGISTROTAN / ERROLDATAN ERREGISTRATZEN DEN

*Erregistroaren/Erroldaren izena: _____

*Erregistro-data: _____ *Erregistro-zenbakia: _____ *Eratu zen urtea _____

*Estatutuen arabera, hau da entitatearen helburua (hitzez hitz kopiatu):

DIRUZ LAGUNTZEA NAHI DEN PROIEKTUA

*Proiektuaren izena:

*Proiektuaren arduradunaren datuak:

*Izena _____

*Kargua _____

*Telefonoa _____ Faxe _____ *Posta elektronikoa _____

Laneko helbidea:

*Lurralde historikoa: _____

*Udalerria: _____ *Helbidea: _____

*Zenbakia: _____ *Solairua: _____ Letra: _____ *Posta-kodea: _____

*Proiektuaren deskribapena: (zertan datzan, nori eta nola zuzenduta dagoen...)

2022ko uztailaren 18a, astelehena

***Justifikazioa edo arrazoiak** (egoeraren diagnostikoa, beharrak eta antzeman diren eta bete nahi diren hutsuneak):

***Proiektuaren historia laburra** (hasiera-urtea, zenbat denbora daraman gauzatzen, zer aldaketa egin diren, erakundearen esperientzia):

***Oinarri teorikoak:** zein arlotan eragin nahi den.

PROIEKTUAREN HELBURUAK

***Helburu orokorra:**

***Helburu espezifikoak:**

***Helburu operatiboak:** (pertsona/erakunde hartzaileak, hartzaile kopurua, esku-hartze mota, esku-hartze kopurua, argitalpenak)

2022ko uztailaren 18a, astelehena

PROGRAMAKO JARDUERAK, FASEEN ARABERA (programak barne hartzen d(it)uen proiektu(ar)en faseak zehaztuta).

***1. fasea: plangintza eta diseinua:**

--

***2. fasea: implementazioa eta gauzatzea:**

--

***3. fasea: ebaluazioa:**

--

***Aurreikusitako beste jarduera batzuk (zabalkundea...):**

--

PROIEKTUAREN BALIABIDEAK

***Proiektuaren iraunaldia, hilabetetan (gehienez 12 hilabete)**

Proiektuan baliatu diren giza baliabideak:

Titulazioa	Kategoria	Arduraldia (%)

Erakunde edo zerbitzu publikoak eta sareko lana

--

Erakundea bakarrik:

Bai

Ez

PROIEKTUAREN AURREKONTUA

Proiektuaren kostu osoa, kontzeptuen arabera banatuta:

Zuzeneko kostua

Kostu mota	Azpiktratatutako erakundearen edo pertsonaren izena	Deskribapena	Zenbatekoa

Zuzeneko kostuak: _____

Kontratutako erakundeko langileen gastuak (erakundeko langileen gastuak ezingo dira izan deialdi-aginduaren 12.1 artikuluan adierazitako kopuruak baino handiagoak).

Izen-abizenak	Kategoria	Kopurua	Arduraldia %	Zenbatekoa

Langile-gastuak: _____

Zuzeneko kostuak, guztira: _____

Zeharkako kostuak, guztira: proiektuaren kostuan duen eragina (programaren zuzeneko kostuaren % 20 gehienez ere). Zehaztu:

Deskribapena	Zenbatekoa

Zeharkako kostuak, guztira: _____

Proiekturako diru-sarrerak:

Kontzeptu mota	Deskribapena	Zenbatekoa

Diru-sarrerak, guztira: _____

Eskatutako kopurua:

Proiektuaren kostu osoa: _____

Proiekturako aurreikusitako diru-sarrerak, guztira: _____ Aurreikusitako defizita: _____

Eskatutako dirulaguntza (*) _____

(*) Eskatutako dirulaguntza defizita baino txikiagoa edo berdina izan behar da

BESTELAKO FINANTZAKETA-ITURRIAKBa al duzu bestelako finantzaketa-iturririk? Bai Ez

Deskribapena	Emandako zenbatekoa	Eskatutako zenbatekoa

Eskatu al duzu beste laguntzarik? Bai Ez

Deskribapena	Eskatutako zenbatekoa

Datu pertsonalak babestea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuk babesteko Erregelamendu Orokorra), Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoa (abenduarien 5eko 3/2018 Legea) eta datuen babesaren arloan indarrean dauden gainerako arauak betetzeko, jakinarazten da datu pertsonalak tratatu eta «Joko patologikoa prebenitzeko dirulaguntzak» deritzon tratamendu-jardueran sartuko direla. Hauek dira haren ezaugarriak:

Arduraduna: Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza. Segurtasun Saila. **Xedea:** EAEn irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko laguntzen eskaerak eta horien jarraipena kudeatzea. **Legitimazioa:** tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. **Hartzaileak:** ez da aurreikusten datu-komunikaziorik. **Eskubideak:** Eskubideak: Datuak eskuratu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubideak dituzu, bai eta informazio gehigarrian adierazten diren beste eskubide batzuk ere. **Informazio gehigarria:** Informazio gehigarria: Gure web-orrialdean begira dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza.

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepe/eu/gardentasuna/152700-cap2-eu.shtml>

Erantsi dokumentuak Eskatutako dokumentu motak Eskatutako dokumentuak Erantsitako Dokumentuak Ekintzak Hirugarrenen alta-dokumentua. Gehitu beste dokumentu mota bat. **Instrukzio-organoak datuak ofizioz egiaztatzea** Aplikagarri den araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak honako datu hauek egiaztatuko ditu eskumena duen administrazioan: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko (GSDN) betebeharrak egunean izatearen datuak. Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAeko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia). AURKA EGITEN DIOT prozedura honetako instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzeari (39/2015 Legearen 28. artikulua). Aurka eginez gero, prozeduran aurreikusitako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.

Sinatu eta bidali

II. ERANSKINA

DIRULAGUNTZEN KONKURRENTZIARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA

.....andreak/jaunak (IFZ:.....),
erakundearenizeneko
 proiektuaren arduradun nagusi denez, honako hau

ADIERAZTEN DU:

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 33. artikulua ezartzen duenari jarraikiz, honako diru-sarrerak edo laguntzak eskatu/jaso ditu:

Programaren izena	Deialdiaren urtea	Erakunde emailea	Zenbatekoa (€)	Helburua	Proiektua gauzatzeko epea

..... (e)n, 2022ko ren (e)(a)n

Sin.:

III. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO-MEMORIAREN EREDU NORMALIZATUA

EAEEn irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak.

EAEEn irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak.

ERAKUNDEKO ERREFERENTZIAKO PERTSONAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK,
JUSTIFIKAZIOARI DAGOKIONEZ HARREMANETAN JARTZEKO

Izen-abizenak:

Entitatean duen postua, kargua, egoera edo ordezkaritza: Tel.:

Mugikorra:

Faxa:

Posta elektronikoa (e-maila):

1.- INFORMAZIO OROKORRA

1.1.- Dirulaguntza jaso duen jardueraren izena: _____

1.2.- Jardueraren deskribapen laburra (kopiatu eskabidean adierazitakoa).

1.3.- Jardueraren lurralde-eremua. Kokapen zehatza (EAEko zer gunetan, hiritan, auzotan edo udalerritan gauzatu den proiektua).

1.4 - Proiektuaren iraupena.

Aurreikusitako hasiera-data:

Benetako hasiera-data:

Aurreko datak bat ez badatoz, azaldu zergatik:

Amaiera-data:

Egikaritze-aldia:

2.- JARRAIPEN TEKNIKOA

2.1.– Proiektuaren garapenaren deskribapen laburra. (azaldu proiektua aurreikuspenen arabera gauzatu den, zer laguntza eta zailtasun aurkitu diren prozesuan, zer aldaketa egin diren aurreikusitako jardueretan, halakorik egin bada, eta zenbat hartzaile eta nolakoak izan diren.

Zehaztu nola egin diren proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa).

--

2.2.– Proiektuaren helburuak lortzea (azaldu nola lagundu duen proiektuak aurreikusitako helburuak lortzen).

--

2.3.– Emaidzak lortzea (azaldu aurreikusitako emaitza eta hori neurtzeko erabilitako adierazleak, eta zehaztu zenbateraino lortu den).

1. emaitza:
Adierazleak:
Iruzkinak:
2. emaitza:
Adierazleak:
Iruzkinak:
3. emaitza:
Adierazleak:
Iruzkinak:

Aurreikusitako emaitza gehiago izanez gero, jarraitu zerrendarekin.

2.4.– Garatutako jardueren zerrenda

Aurreikusitako jarduera	Amaituta	Egin gabe
Aurreikusi gabeko jarduera		

2.5.– Jardueren kronograma eguneratzea (zerrendatu 2.4 apartatuan azaldutako jarduerak, eta markatu x batekin jarduera bakoitzaren gauzatze-hilabeteak).

Jarduera	Urt.	Ots.	Mar.	Api.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira.	Urr.	Aza.	Abe.

2.6.– Jarduera aurrera ateratzeko behar diren giza baliabideak: kuantifikazioa eta ezaugarriak (prestakuntza, kualifikazioa eta identifikazioa barne direla). Kontratutako pertsonen kasuan, adierazi zuzenean edo erakunde eskatzailearen bitartez kontratatu diren, kontratuak zenbat iraun duen eta zer jardunaldi mota izan duten. Boluntarioen kasuan, adierazi astean zenbat ordu eskaini dizkioten jarduerari eta zenbat denbora iraun duen borondatezko lanak. Aipatu zer eginkizun izan dituen kontratatutako pertsona bakoitzak, aurkeztutako jardueraren fase guztietan.

2.7.– Aurrekontua gauzatzea: nola gauzatu den aurrekontua, dirulaguntza-eskaeran adierazitakoaren aldean aldaketarik egon den, eta, halakorik izan bada, zer eragin izan duten proiektuan.

3.– BALORAZIOA

3.1.– Proiektuaren balorazio orokorra (proiektuaren alderdirik garrantzitsuenak baloratzea: egindako jardueren bidez emaitzak eta helburuak lortzea, aurrekontua gauzatzea, esku-hartzearen hartzaile izan diren pertsonen partaidetza, etorkizuneko esku-hartzeetarako hobetu beharreko alderdiak, eta abar).

3.2.– Genero-ikuspegia (adierazi jardueraren ziklo osoan zein neurritan eutsi zaion genero-ikuspegi bati, hots, emakumeen eta gizonen egoera, baldintza eta premia desberdinen kontsiderazio sistematikoa, desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jardun espezifikoa txertatuta).

3.3.– Koordinazioa beste gizarte-erakunde eta erakunde publiko batzuekin (adierazi nola gauzatu den jarduera beste erakunde pribatu edo publikoekin koordinatuta, baita etorkizunean egin daitezkeen lankidetzak-erakunde ere).

2022ko uztailaren 18a, astelehena

JARDUERAREN JARRAIPEN EKONOMIKOA

ERAKUNDEA:

JARDUERA:

JARDUERAREN AURREKONTU GAUZATUA

JARDUERAREN DIRU-SARRERAK

Diru-sarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoa
Erakunde onuradunaren ekarpena		% 0,00
Dirulaguntzak (zehaztu behean)	0,00 €	% 0,00
Segurtasun Sailaren (Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza) dirulaguntza		% 0,00
		% 0,00
		% 0,00
		% 0,00
Beste diru-sarrera batzuk (zehaztu behean)	0,00 €	% 0,00
		% 0,00
		% 0,00
		% 0,00
		% 0,00
Diru-sarrerak, guztira	0,00 €	% 100,00

2022ko uztailaren 18a, astelehena

JARDUERAREN GASTUAK

	Segurtasun Sailaren (Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza) dirulaguntza	Beste dirulaguntza batzuk	Erakunde onuraduna	Beste diru-sarrera batzuk	Guztira
Jardueraren zuzeneko gastuak					
Langileak (nominak eta gizarte segurantzako gastuak)					0,00 €
Profesional independenteen zerbitzuak					0,00 €
Materialak					0,00 €
Alokairu eta errentamenduak					0,00 €
Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak					0,00 €
Bidaiak eta dietak					0,00 €
Zuzeneko beste gastu batzuk (zehaztu lerro gehiago gehituta)	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
					0,00 €
					0,00 €
Zuzeneko gastuak, guztira	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Zeharkako gastuak (zehaztu)					
					0,00 €
					0,00 €
Zeharkako gastuak, guztira	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Gastuak, guztira	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Ehunekoak	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00

JUSTIFIKAZIO-KONTUA

(Erantzukizunpeko adierazpena, dirulaguntzaren zenbatekoari egotzitako gastua egiaztatzen duten ziurtagirien zerrenda jasotzen duena)

JUSTIFIKATUTAKO ZUZENEKO GASTUAK

Zk.	Dokum. mota	Identifikazioa	Kontzeptua	Igorlea	Data	Zenbatekoa	Egotzitako zenbatekoa	Egotzitako %
Langileak (nominak eta erakundearen kontura dauden Gizarte Segurantzako gastuak)						0,00 €	0,00 €	% 0,00
1								% 0,00
2								% 0,00
Profesional independenteen zerbitzuak						0,00 €	0,00 €	% 0,00
...								% 0,00
								% 0,00
Materialak						0,00 €	0,00 €	% 0,00
								% 0,00
								% 0,00
Alokairu eta errentamenduak						0,00 €	0,00 €	% 0,00
								% 0,00
								% 0,00
Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak						0,00 €	0,00 €	% 0,00
								% 0,00
								% 0,00
Bidaiak eta dietak						0,00 €	0,00 €	% 0,00
								% 0,00
								% 0,00
Zuzeneko beste gastu batzuk (zehaztu)						0,00 €	0,00 €	% 0,00
								% 0,00
								% 0,00
Justifikatutako zuzeneko gastuak, guztira						0,00 €	0,00 €	% 0,00

JUSTIFIKATUTAKO ZEHARKAKO GASTUAK

Zk.	Dokum. mota	Identifikazioa	Kontzeptua	Igorlea	Data	Zenbatekoa	Egotzitako zenbatekoa	Egotzitako %
1								% 0,00
2								% 0,00
...								% 0,00
Justifikatutako zeharkako gastuak, guztira						0,00 €	0,00 €	% 0,00
Justifikatutako gastuak, guztira							0,00 €	% 0,00
Emandako laguntza							0,00 €	% 100,00

IV. ERANSKINA

ESLEIPEN-IRIZPIDEEN PUNTUAZIO-TARTEAK, 11. ARTIKULUAN EZARRITAKO GEHIENENKO PUNTUEN ARABERA

Esperientzia (0-20 puntu)		PUNTUAK
Erakunde eskatzaileak daukan esperientzia jokoari lotutako arazoekin zerikusia duten jarduerak edo programak egiten. (Gehienez 10 puntu).	Puntu 1 urte bakoitzeko	
Jokoarekin zerikusia duten patologietarako laguntzaren eta prebentzioaren eremuan duen esperientzia . (Gehienez 10 puntu).	Puntu 1 urte bakoitzeko	
Dirulaguntzarekin egingo diren jardueren balorazioa. (0-80 puntu)		PUNTUAK
Diseinuaren kalitate teknikoa (zer faktoreri eragin nahi zaien, lortu nahi diren helburu espezifikokoak, helburu horiek betetzeko aurreikusitako jarduerak eta helburu horien lorpen-mailaren adierazlearen ebaluazioa). (GEH. 30 puntu).	Betetze-maila/deskribapena/banakapena - Lau puntuena - Hiru punturena - Bi punturena - Puntu batena - Deskribapen orokorra, zehaztu gabe	30 23 16 9 2
Gizarte-ekimeneko beste erakunde batzuekin edota eremu sozial, sanitario, soziosanitario edo hezkuntza-eremuko beste federazio edo erakunde batzuekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea. Jokoa Arautzeko Agintaritzarekin elkarlanean aritzea , bereziki Jokoa Euskal Behatokiarekin. (GEH. 10 puntu).	Koordinazioa erakundeekin Jokoa Arautzeko Agintaritzarekin elkarlanean aritzea	5 5
Proiektuaren efizientzia , hau da, proiektuaren kostuaren, onuradun kopuruaren eta programa aplikatzeak eragingo dituen onuren arteko erlazioa. (GEH. 20 puntu).	Onuradun kopurua, benetako datuetan oinarrituta: elkarteko erabiltzaileak, errehabilitazioan dauden pertsonak, senideak... Onuradun kopurua, estatistiketan edo azterketetan oinarrituta Beste batzuk	20 10 2
Proiektuak joko arazotsuaren prebentzioan eta joko arduratsuaren hedapenean izango duen eragina, proiektuko jardueren hartzaileen kopurua neurtuta (GEH. 20 puntu).	Hartzaile kopuru zehatza, benetako datuetan oinarrituta: elkarteko erabiltzaileak, errehabilitazioan dauden pertsonak, senideak... Hartzaile kopurua, estatistiketan edo azterketetan oinarrituta	20 10